


Musikarien irudikapena Alfontso X.aren Kantigetako miniaturetan



Egilea: Leire Leonet Zuloaga

Tutorea: Juan Jose Usabiaga Urkola

Gradua: Artearen Historiako gradua

Saila: Artearen Historia eta Musika

Ikasturtea: 2015-2016

AURKIBIDEA

1. Laburpena.....	3.orr.
2. Sarrera.....	4.orr.
3. Andra Mariaren kantigak.....	5.orr.
3.1. Kantiga historiatuak: Kodize Aberatsa eta Florentziako Kodizea.....	6.orr.
3.2. Kodizeen egileak.....	7.orr.
3.3. Kantigetako miniaturak.....	8.orr.
4. Musika Gotikoaren garaiak.....	9.orr.
5. Musikarien irudikapenen analisia Andra Mariaren Kantigetan.....	11.orr.
5.1. Alfonsoren musikarekiko zaletasuna: aurkezpen miniatura.....	11.orr.
5.2. Musikaria Kantigaren protagonista.....	14.orr.
5.3. Musikariak iragarle moduan.....	18.orr.
5.4. Musikariak (ainguruak) paradisuak.....	22.orr.
5.5. Musikariak Ama Birjina goraiatzeko.....	24.orr.
6. Ondorioak.....	26.orr.
7. Bibliografia.....	28.orr.

1. LABURPENA

Erdi Aroko musikariak oso ezezagunak eta ezagunak izan dira aldi berean; izan ere, hauen eginkizunak eta betebeharrak ezagutzen ditugu, baina, zoritxarrez, ez dira hauen kantak eta instrumentuak jotzeko modua gugana iritsi. Zorionez, kontserbatu diren hainbat kodizeei esker hau sakonago ezagutu ahal dugu eta horietako adibide bat dugu Alfontso X.a Jakintsuaren erregealdian idatzitako Andra Mariaren Kantigak. Kantigetako miniaturretan, zehazki, Kodize Aberatsean agertzen diren musikarien irudikapenak ditugu lan honen ardatza.

Kodize hauek Erdi Aroko kodizerik garrantzitsuenetakoak dira, ez bakarrik poesia eta kantuengatik, baizik eta margoturik aurkitzen ditugun miniatuengatik. Hauek Maria goraiatzea dute helburu nagusia eta horretarako, berak egindako mirariak eta gertakizunak kontatuko dira, bere bitartekaritza goraiatuz. Alfontso X.a erregeak oso gustuko zituen kodize hauek; garrantzi handiko datua izango da, bere irudikapena behin eta berriz agertuko delako.

Miniaturak XIII.mendeko gizartearen erlijiotasunaren isla garrantzitsua izango dira eta, horretaz gain, musikak zuen garrantzia ere azalduko da. Ikerketa asko egin dira miniatura hauen inguruan, arlo arkeologiko eta artistikoari dagokionez, eta musikarien ikerketek garrantzi handiko lekua izango dute.

Musikari hauek garrantzi handikoak izango dira, Kantiga hauek duten helburua helarazteko pertsonaia garrantzitsuak izango direlako. Kodize hauen helburua analfabetoei, miniatuaren bidez, doktrina jakin bat helaraztea izango da, Mariaren bitartekaritza zehatza azaltzea hain zuzen ere. Horretarako musikari hauek bost tipologia ezberdinetan banatuko ditugu eta denek lehen aipatu dugun helburua erakustea izango dute eginkizun nagusia.

Adierazpen hauetan XIII.mendeko musikari ezberdinak ikusiko ditugu, hau da, juglareak eta trobadoreak agertuko dira. Hauek beraien artean duten ezberdintasuna ere agertuko da eta Erdi Aroko gizartearen isla garrantzitsua izango dira, hauek eguneroko bizitzan gertatutakoa kontatzeaz gain, erlijiotasunari buruz ere kantatuko dute. Ikusiko dugun bezala, kantiga hauek iturri garrantzitsuak izango dira Erdi Aroko gizartea nolakoa zen aztertzeko, baina, horretaz gain, musikarien papera zein zen eta beraien bizitzaren nondik norakoak aztertzeko balioko digute.

2. SARRERA

Gradu amaierako lana egiteko aukeratu dudan gaia Alfonso X.aren Andra Mariaren Kantigetan, zehazki Kodize Aberatsean, agertzen diren miniaturretan musikarien irudikapena aztertzea izango da; izan ere, garrantzi handia duen dokumentua da gordetzen dituen miniaturrei dagokionez.

Lana burutzeko, Kodize Aberatsaren faksimilea (T.1.1) aztertzeko aukera izan dut eta bertan dauden miniaturak ikusi eta gero, musikariak agertzen direnetan zentratu naiz. Horretaz gain, azterketa burutzeko iturri ezberdinak erabili ditut. Horietako bat Matilde López Serrano, José Filgueira Valverde, Ramón Lorenzo Vázquez, José Guerrero Lovillo eta José María Lloréns Cisteró-k eginikoa ikertu dut.¹ Bertan Kodize Aberatsari buruzko hainbat atal idatzi zituzten, miniaturak eta musikaren inguruan, besteak beste eta oso lagungarria izango zaigu lan honen garapenerako.

Horretaz gain, Jose Filgueira Valverderen² beste ikerketa batek, kantiga eta, batez ere, miniatura bakoitzaren deskribapen zehatza eskaintzen digu; beraz, musikarien adierazpenerako lagungarria izan dela esan daiteke. Instrumentuei dagokionez, bikaina den Terence Ford-en liburua³ izango da abiapuntua eta miniaturretan agertzen diren instrumentuak hobeto aztertzen lagunduko digu. Garrantzitsua da aipatzea Marivi Chico Picaza-k⁴ egindako kantigen inguruko ikerketak, kodize hauek bikainki aztertu dituelako. Amaitzeko, Paulino Capdepón-ek⁵ idatzitako artikulua erreferentzia garrantzitsua dela esan behar da, Alfontso X.aren garaiko musikari buruz hitz egiten digulako.

Iturri hauek garrantzitsuak izan dira Kodize Aberatsaren faksimilea aurrez aurre aztertzerakoan, lan hau hobeto ulertzen lagundu didatelako; ez bakarrik kodizearen edukia, baizik eta, aztergai dugun miniaturretako musikarien irudikapenak ere. Nire helburu nagusia miniaturretan agertzen diren musikariak aztertzea izango da, agertzen diren tipologia eta jotzen dituzten instrumentuetan zentratuz. Horrela, erregearentzat

¹ LÓPEZ SERRANO, M., *et.al. El Códice Rico de las Cantigas de Alfonso X el Sabio: Ms. T.I.1 de la Biblioteca de El Escorial*, Edilan, Madrid, 1979.

² FILGUEIRA VALVERDE, J., *Cantigas de Santa María: Códice Rico de El Escorial*, Editorial Castilia, Madril, 1985.

³ FORD, T., *Lista de instrumentos musicales occidentales: Anotada desde un punto de vista iconográfico*, Asociación Española de Documentación Musical, Madril, 1999.

⁴ CHICO PICAZA, M^a V., "Praxis y realidad en la miniatura del Códice Rico de las Cantigas de Santa María", *Codex Aquilarensis* 28, Palencia, 2012, 149-167.orr.

⁵ CAPDEPÓN, P., "La música en la época de Alfonso X el Sabio: las Cantigas de Santa María", *Alcanate VII*, Sevilla, 2010-2011, 181-214.orr.

izan zuten garrantzia azpimarratzeaz gain, XIII.mendean izan zuten oihartzuna islatuko da. Beraz, miniaturretako musikarien irudikapenen analisi ikonografiko bat egin ondoren, ondorio batzuk helaraziko ditut.

3. ANDRA MARIAREN KANTIGAK

Erdi Aroan Alfontso X.a erregeak garrantzia handia izan zuela esan dezakegu, bai politika arloan eta, batez ere, kulturaren arloan; izan ere, bere garaian kulturak gorakada handia izan zuen eta hainbat liburu eta lan egin ziren bere erregealdiak iraun zuen bitartean.

Alfontso X.aren *scriptorium*-ean⁶ egin ziren obrak garrantzi handikoak direla esan behar dut; izan ere, hainbat gaien inguruan idatzitakoak dira: *Las Partidas* lan juridikoa, *Estoria* lan historikoa edo *Libros del Saber de Astrologia Espanna* lan zientifikoa besteak beste eta aztertuko ditugun kantigak. Hauek intentzio bakarra dutela esan behar dugu: Alfontso X.aren ekintza intelektual eta kulturala gorteko gobernuaren prestigioaren parte izatea. Bere erreinua boteretsuago eta entzutetsuagoa izango zen horrelako obrak egin eta gero. Ekimen hauek erregea tronura iritsi baino lehenago hasi eta bere heriotzara arte jarraitu zirela badakigu.

XIII.mendeko kulturaren loraldi horren adibide garrantzitsuetako bat Andra Mariari eskainitako kantigak ditugu. Kantigak Europan Ama Birjinarenganako debozioa hazi zeneko garaian idatzi ziren, baina bere dotorezia eta bikaintasunagatik, Mariari eskainitako obrarik garrantzitsuenetako bat dela esan dezakegu.

Andra Mariaren kantigak Alfontso X.aren mandatuan egin ziren eta hauek kanta monodikoak dira, hau da ahots bakarrarentzako eginak. Konposizio poetiko eta musikalak dira, gailego-portugesez idatziak daude eta Ama Birjinari eskainiak diren poesiak eta kanta daude bertan; Mariaren bertuteak eta bere laguntzari esker gertatutako mirariak kontatzen dira, jaiegunetan kantatzeko erabiliz. Hauek partitura, poesia eta miniaturrekin osatuta daude.

Alfontso erregeak zuen debozio pertsonala oso ondo islaturik geratu zen kodize hauetan. Erregea 1284ko urtarrilaren 21ean bere testamentua idazterakoan liburu hauen

⁶ Erdi Aroan oso ohikoak izaten ziren eta monastegi batean idaztearen aktibitateari erreferentzia egiteko erabiltzen den hitza da. Kodizeak idazten eta edertzen egile espezializatuak izaten ziren eta Kantiga hauek horrelako batean idatzi zirela eta irudikatu zirela esan dezakegu.

inguruan zuen kezkarri buruz idatzi zuen. Bertan badago klausula bat hau adierazten duena⁷.

Erregeak Bere testamentuan argi utzi zuen oso gogoak zituela kodize hauek, berarekin batera lurperatzea nahi zuelako; horretaz gain, norbaitek, bere desioa bete gabe, gain hartzen bazituen elizan erabiltzea eskatu zuen. Bestalde, aipatu behar da erregeak trobadore gisa aktiboki parte hartu zuela trobadoreen mugimenduan, ez bakarrik mezenas moduan, baizik eta hainbat kantu profanoen inguruan protagonista bihurtuz. Andra Mariaren Kantigak giro trobadoresko horren parte dira eta horren adibide izango dugu aurkezpen kantiga deitzen dena, aurrerago aipatuko duguna.

Kantiga hauek garrantzi handia izango dute musikologoentzat, izan ere, geroago ikusiko dugun bezala, garaiko musika nolakoa zen ederki islatzen da eta, honi esker, instrumentuei buruzko informazio gehiago jaso dezakegu. Ismael Fernandez de la Cuestak dioen bezala, miniatura hauek garrantzitsuak dira instrumentuen ikonografiari buruzko informazio asko ematen dutelako⁸.

Kantiga hauek, lehen esan dugun bezala, Mariari eskainitakoak dira eta gaur egun lau kodize kontserbatzen dira. Horietako bi El Escorialeko Liburutegian gordetzen dira, hirugarrena Madrileko Liburutegi Nazionalean eta laugarrena Florentziako Liburutegi Nazionalean. Azken hau, aurrerago aipatuko dudana bezala, ez du inolako notazio musikalik.

3.1. Kantiga historiatuak: Kodize aberatsa eta Florentziako kodizea

Aztertuko dugun kodizea, beste kodize baten bikotea kontsideratzen da eta biak era eta garai berdinean egin ziren. Kantiga Historiatuak izeneko multzoko bi bolumenak dira. Lehenengoa, lan honetan aztergai daukaguna, Kodize Aberatsa deiturikoa (T.I.1), gaur egun El Escorial Monasterioko Erret Liburutegian gordetzen den bitartean, beste bolumena, Florentziako Kodizea (B.R20), izenak dioen bezala, Florentziako Liburutegi Nazionalean gordetzen da.

Tradizionalki, bi bolumen bezala interpretatu izan dira eta bietan erreperitorio ikonografikoak garrantzia handia du; izan ere, testuari laguntzeaz gain, hauek

⁷ GUERRERO LOVILLO, J., *Las Cantigas: Estudio arqueológico de sus miniaturas*. Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Madril, 1949, 19. orr.

⁸ FERNANDEZ DE LA CUESTA, I., *Historia de la música española: 1. Desde los orígenes hasta el "ars nova"*. Alianza Musical, Madril, 1988. 302.orr.

independenteki irakurri eta interpretatu daitezke. Bikainki artikulatuta geratzen dira testua, musika eta miniaturak. Aipatu beharra dago, miniatura egileek izugarritzko dokumentazio grafikoa ematen dutela eta hau oso ondo ikusten dela kodizeetako miniaturretan; hala nola, jantziak, eraikuntzarako materialak, arkitektura etab. Beraz, tradizioetik urruntzen diren miniaturak egiteko nahi bat dagoela ikus dezakegu⁹.

Badakigu, *scriptorium*-ean aldi berean hainbat proiektu egin zirela eta 1280-84 urteen artean egin zirela bai Musikarien Kodizea eta bai Kantiga Historiatuak, nahiz eta azken honen bigarren bolumena, Florentziako Kodizea, ez zen guztiz bukatu erregea hiltzean lanak eten zirelako.

Kodize Aberatsa (T.I.1) 503 X 338 cm-ko neurria du eta 256 pergaminozko orriz osatuta daude. Testua, 2 zutabetan banatzen da (nahiz eta batzuetan bakarrean) eta musikaren partiturak hasieran agertzen dira. Egiturari dagokionez, letra modernoan idatzitako testu bat dago esanez, kantiga batzuk falta direla. Kodizearen konposizioa aztertuz, hasieran aurkibidea ikusten dugu, baina hasieran zeuden orri batzuk falta direla ere esan behar da. 194 kantigez osatuta dago eta Higinio Anglesen arabera, bere kaligrafia eta miniaturren kalitatea bikaina da¹⁰. Miniatura horietako askoetan, aztergai izango ditugun instrumentista juglare eta kantariak irudikatzen dituzte.

3.2. Kodizeen egileak

Kodizeen egileen inguruan, tradizioak eta kodizeetan aipatzen denez erregeak berak parte hartu zuen. Frai Gil de Zamorak¹¹ dio, erregeak berak hainbat kantiga eder idatzi zituela. Horrela, geroago ikusiko dugun bezala, monarkaren irudia hainbat miniaturretan agertzen da Ama Birjinaren trobadorea izango balitz bezala.

Beraz esan daiteke, kantiga hauek monarkak edo berak aginduta, bere langileek sortu zituztela. Gainera, kantigetan zehar hauen autoreari eta kodizearen kopiatzaileei egiten zaio erreferentzia. Esan behar da, erregea garaiko zientzietako, letretako eta arteetako hainbat pertsonaia ezagunekin biltzen zela eta, horri esker, berarekin eta

⁹ CHICO PICAZA, M^a V., *op.cit.* 154.orr.

¹⁰ ANGLÉS, H: *La Música de las Cantigas de Santa María del Rey Alfonso el Sabio*, 3 bol., Diputación Provincial de Barcelona: Biblioteca Central, Bartzelona, 1958, 131.orr.

¹¹ Fraide frantziskotarra. Erregeak bere semea zen Sancho IVren hezkuntza bere eskuetan utzi zuen; horretaz gain, XIII.mendeko musika hispaniarraren inguruko idatzirik dagoen tratatu bakarra idatzi zuen. CAPDEPÓN, P., *op.cit.* 193.orr.

gortearekin erlazioan egon zirela hainbat trobadore, juglare eta musikarien izenak ezagutzen ditugula.

3.3. Kantigetako Miniaturak

Alfontso X.aren kodizeak osatzeko eta irudiak egiterako orduan hainbat gai eta konposizio ezberdinak egitera behartuak ikusi ziren *scriptorium*-eko egile anonimoak. Horrela, tradizioan oinarritutako ikonografia hartzeaz gain, irudi berriak asmatu behar izan zituzten. Honek aspektu ikonografiko, estilistiko eta formaletan izan zuen eragina eta bertako poesiarekin behar bezala uztarturik daude.

Erdi Aroko irudikapen garapen maila gorenean kokatu behar ditugu aztergai ditugun kodize honetako miniaturak eta hauek benetako aberastasun eta garrantzia erakusten digute. Horretaz gain, askatasun handia ikusi dezakegu irudien aldetik. Miniatura hauen helburua doktrina hori erakustea da irudiekin historiak kontatuz eta horretarako tradizioa eta irudimena uztartzen dira.

Kodize hauek, lehen esan bezala, historiadunak dira; hau da, Ama Birjinak egindako mirariak kontatzen dituzte. Zehazki 1246 eszena aztertu ditugu 194 kantigetan banatuta. Kantiga bakoitzak miniaturak ditu eta horrela, testuan azaltzen dena irudietan ere agertzen da. Hizkuntza bikoitza erabiltzen dela esan dezakegu eta honekin irakurketa literario eta musikal hauek bete eta elkarren osagarri izatea lortzen da¹².

Miniatura hauek eszenetan daude banatuta eta hauen bitartez, idatzita dagoena era poetikoan azaldu nahi da. Narrazio hauek aurrera eramateko bi elementu erabiltzen dira: alde batetik, irudia bera, eta beste alde batetik, hitz gutxi erabiliz eszenen gainean kokatzen diren errotuluak. Errotuluetako esaldi hauek eszenan bertan daude sartuta, inolako kontrasterik egin gabe eta armonia zentzu bat emanez. Gauza berdina gertatzen da eszena inguratzen duten molduretan.

Gotiko linealaren esparruan sartu beharko genituzke miniatura hauek, eta ezaugarri garrantzitsuena narrazioa dela esan dezakegu. Koloreei dagokionez, kolore lauak dira, hotzak eta beroak azaltzen dira irudiari oreka bat emanez. Kolore gorriaren, marroiaren eta urdinaren presentzia azpimarratu behar da, batez ere horiek erabiltzen direlako. Nahiz eta ingerada kolorea baino garrantzitsuagoa den, hauen helburua irudiak nabarmentzea da, kolore lauak eta distiratsuak erabiliz.

¹² CHICO PICAZA, M^a V., *op. cit.* 150.orr.

Perspektibari dagokionez, garai honetan ohikoa den bezala, sakontasuna lortzeko buruak bata bestearen gainean jartzen dira; hau miniatura guztietan ikusiko dugu. Horretaz gain, pertsonai guztiak altura berdina dutela esan behar dugu. Gainera, denek aurpegi eta janzkera berdinak dituzte. Perspektiba hierarkikoa ere erabiltzen dela ikusiko dugu; izan ere, bai Ama Birjina, bai erregea eta bai Jainkoa beste pertsonaiak baino handiagoak direla ikusiko dugu. Bakoitzak zuen boterea adierazteko erabiltzen den elementua dela esan dezakegu eta askotan erabiliko da.

4. MUSIKA GOTIKOAREN GARAIAN

Erdi Aroko musika garai hartako kulturak eman digun gairik garrantzitsuenetako bat da; hala ere, esan behar da, gaur egun oraindik ere hainbat misterio gordetzen dizkigula. Beste arte plastikoak ez bezala (hauek denbora aurrera joan heinean mantendu egiten dira) musika desagertu egiten da eta kontserbatzeko modu bakarra partitura eta idatzien bidez gordetzea da. Zoritxarrez, Erdi Aroan hau ez zen oso ohikoa, ondorioz, informazio dezente galdu egin da.

Hala ere, garaiko anotazio musikal batzuk gordetzen dira eta horien artean kokatzen da lan honetan aztergai duguna, Alfontso X.a erregearen Andra Mariaren Kantigak. Hauek XIII.mendeko musikaren isla garrantzitsu eta nagusi dira eta bertan agertzen diren miniaturretan agertzen da, aurrerago ikusiko dugun bezala. Paulino Capdepón-ek dioenez, Kantiga hauetako miniaturak garrantzitsuak dira juglare eta kantariak irudikatzeaz gain, instrumentuen ikasketan laguntzen dutelako¹³.

XIII.mendeko Espainian eta Europan 4 musika ezberdin praktikatu ziren:

1. Gregorianoa: sakratua, ahots bakarrekoa eta beti latinez kantatzen dena, liturgia katolikoaren berezkoa dena.
2. Polifonia: ahotsentzako musika zen eta arlo profanoan eta erlijiosoan ematen zen, latinez eta herri-hizkeran.
3. Kortasano instrumentala edo kantatua: arlo profanoa eta erlijiosoa da eta, normalean, herri-hizkeran kantatzen da.
4. Musika popularra: kanta eta dantza izango litzatekeena.

¹³ CAPDEPÓN, P., *op.cit.* 191.orr.

Kantigak monodikoak dira eta monodia hauen helburua gordea eta herria alaitzea zen; beraz, erregeak hau kontuan izanda, kantigak gordea alaitzeko ere erabiltzen zirela esan daiteke. Horrela bada, polifonia baztertu zen Kantiga kortesano eta popularrentzako egokia ez zelako.

XIII.mendea musika kortesano monodikoaren garaia zen, trobadoreek egindakoa, normalean herri-hizkeran kantatutakoa eta maitasun zentzu batekin. Europako gorde askok beraien trobadore eta musikariez baliatzen ziren errege eta goi mailako familiak alaitzeko. Prozesu hau Frantzian hasi zen eta segituan zabaldu zen Aragoi eta Gaztelako gordeetara. Esparru honetan sartu beharko genituzke aztergai ditugun kantiga hauek.

Instrumentuei dagokionez, ikus dezakegu erreperitorio zabal bat egon zela garai hartan eta hau oso presente egongo da kodize hauetan. Nahiz eta aztergai dugun kodize honetan instrumentu ugari ez egon, Andra Mariaren Kantigetako beste kodizeetako bat instrumentuz josita dago eta, kodize horren bitartez, instrumentuak sakonki azter ditzakegu. Adierazi behar dut, hauen identifikazio zehatza zaila dela; izan ere, Erdi Aroko instrumentu asko desagertu egin dira eta, ondorioz, zerrenda zehatz bat ezin izan da osatu. Baina, horrelako miniaturen, pinturen eta eskulturen bitartez, hauek nolakoak diren ezagutu ditzakegu.

Talde ezberdinetan sailka ditzakegu instrumentuak, baina kodize honetan agertzen direnak hauek izango dira: alde batetik, aerofonoak (haizea erabiliz jotzen direnak), kordofonoak (soka erabiliz jotzen direnak), idiofonoak (instrumentua bera kolpatuz erresonantzia gisa egiten duena) eta membranofonoak (soinua larruz egindako mintz bat kolpatuz lortzen dena).

Musikariei dagokienez, klase ezberdinetakoak zeudela adierazi behar da, baina, geroago aztertuko dugun bezala, kantiga hauetan bi motatakoak agertuko dira: alde batetik, juglareak azalduko zaizkigu. Hauek klase baxukoak izaten ziren eta helburua jendea entretenitzea izaten zen. Horretarako trobadoreek idatzitako poesiak erabiltzen zituzten eta oso gutxitan idazten zituzten beren kanta propioak. Herriz herri ibiltzen ziren eta, gehien bat, jende analfabetoarentzat kantatzen zuten. Askotan musika, dantza, lirika... dena batera nahasten zuten. Hauek izan ziren Erdi Aroko kulturaren transmititzaile nagusiak: musika teknikak, poesia, notiziak, gertaera sozialak etab. helarazten zituzten ahozko tradizioaren bitartez; beraz paper garrantzitsua izan zuten.

Beste alde batetik, trobadoreak ditugu eta hauek juglarearen guztiz kontrakoak izan ziren. Trobadoreak askotan nobleziako partaideak izanda, bere kantuen gaien artean maitasunezkoak, politikoak eta historia sozialak azaltzen zituzten; juglareak bezala, herriz herri ibiltzen ziren. Trobadore hauek formazio onekoak izaten ziren eta testuak eta musikak sortzeko gai izaten ziren; gehienek *trivium* eta *quadrivium* ikasia zuten eta horrek prestigio handia eman zieten. Beraiek konposatutako lanak Europa mendebaldeko historiaren iturri garrantzitsua izango dira eta hauei esker, trobadoreen izen asko ezagutu ahal ditugu. Askotan trobadore izateak pribilegio handiak ekartzen zizkien, izan ere, jauntxoek aholkulari izatera iristen ziren batzuk. Oso ongi kontsideratuta egon zen lanbide bat dugu, baina XIII.mendean, batzuk prestigio faltaz kexatzen ziren eta gorte askotan ez ziren ongi etorriak izaten.

Beraz, laburki azaltzeko, trobadoreak kanten egileak ziren bitartean, juglarek hauek interpretatu egiten zituzten. Kanta hauetan trobadoreek beren sentimenduak azaltzen zituzten eta beraien gai nagusia maitasuna izaten zen. Hau modu ezberdinetara erakutsi ahal zuten eta kasu honetan, Ama Birjinarenganako maitasuna erakustea izango litzateke helburua, berarenganako leialtasuna erakutsiz.

5. MUSIKARIEN IRUDIKAPENEN ANALISIA ANDRA MARIAREN KANTIGETAN.

Aipatu dugun bezala, Alfontso X.ak kulturarekin konpromiso handia izan zuen eta, horretaz gain, erregearen gobernuaren zati garrantzitsua izan zen. Lehen esan bezala, hainbat kodize idatzi ziren bere erregealdian, baina XIII.mendeko kultura hobekien islatzen duena Andra Mariaren Kodizeetako miniaturak izango dira

Musikariak oihartzun handia izan zuten XIII.mendean eta hori oso argi ikus daiteke aztergai dugun kodizeko miniaturretan. Tipologiaren arabera banatu daitezke; hau da, musikari bakoitzak miniaturan egiten duen ekintzaren arabera; horrela, 5 tipologia ezberdin aurkitu ditugu. Tipologia hauek zortzi kantigetan zehar agertuko dira.

5.1. Alfontsoaren musikarekiko zaletasuna: aurkezpen miniaturretan

Aurkezpen miniaturretan, musikak XIII.mendean eta, batez ere, erregearentzat duen garrantzia azpimarratu nahi da. Ez dakigu ezer erregearen hezkuntza literario eta musikalaren inguruan, baina badakigu beste juglare eta trobadoreekin batera lehiatu zela

bere aitaren gortean eta beste musikari eta poetekin batera ibiltzen zela. Horretaz gain, Alfontso X.ak musikari buruzko hainbat jakintzagai ikasi zituen: kantu eklesiastikoa, probentzako trobadoreen forma musikalak etab.

Erregeak kargua bere gain hartu zuenean, Toledo bere egitasmo artistiko eta zientifikoaren gune bihurtu zuen. Bertan judutarrek, musulmanek eta kristauek elkarrekin egin zuten lana, Toledoko gorteari ospe handia emanez Europako beste gorteen aurrean prestigio handia lortuz. Beraz, esan dezakegu, bere helburuetako bat kultura zabaltzea izan zela.

Erregeak kantigak irekitzen dituen lehenengo miniaturan azaltzen da, protokolo



1. Irudia: 4v. Aurkezpen Kantigako 1.miniatura

moduan, pregoi edo proklamazio antzeko bat eginez. Estrofa bere izenarekin hasten da eta ondoren, honek dituen erreinuen izenak aipatzen dira; garrantzia handia ematen dio berak musulmanei kendu eta kristautasunera hurbildu dituen erreinu eta lurraldeei.

“Don Alfonso de Castilla, de Toledo, de Leon,

rey, y bien, desde Compostela hasta el reino de Aragon, de Cordoba, de Jaen, de Sevilla tambien y de

*Murcia, donde Dios le hizo un gran bien, com aprendi; del Algarve, que gano de Moros y adonde introdujo nuestra fe, que tambien poblo Badajoz, que es reino muy antiguo, y que tomo a los moros Niebla y Jerez, Vejer, tomo Medina y Alcala, en otra ocasion, y que es Rey de Romanos, y por derecho, es Señor, este libro, como lo he hallado, hizo, a honra y en loor de la Virgen Santa Maria, que es Madre de Dios, en quein el mucho confia. Por ende, de sus milagros hizo cantares y sones sabrosos de cantar, todos de sendos asuntos, como ahi podeis hallar”.*¹⁴


Miniaturei dagokionez, partituraren gainean, miniatura txiki bat ageri zaigu (ikus. 1.irudia). Bertan, 3 arku zorrotz aurkitzen ditugu, erdiko albokoak baino altuagoa eta zabalagoa izanik eta kolomen bidez sostengatzen direnak. Erdiko arkuaren azpian erregea agertzen zaigu, bere tronuan eserita eta eskuan pergamino bat duela.

¹⁴ FILGUEIRA VALVERDE, J., *op.cit.* 9.orr.

Alboetan kantariak ageri dira, 3 alde bakoitzean eta hauek pergaminoak¹⁵ dituzte eskuetan. Ikusten dugun erregearen irudia garrantzitsua da, bera da kantiga honetako protagonista nagusia; izan ere, beste irudiak baino handiago eta altuago irudikatzen da, bere boterearen seinale. Kantari hauek kodize honetan agertzen diren kantigak abestuko zituztenen irudikapena izango litzateke. Miniatura honetan ikusten da bai musikak eta bai musikariek erregearentzat duten garrantzia, Ama Birjinaren boterea erakusteko balio duena.

Horretaz gain, ondoko orrian beste miniatura bat agertzen zaigu, pixka bat handiagoa (ikus. 2.irudia). Bertan

aurreko testuan azaltzen duen botere hori ikusiko litzateke. 5 arku zorrotz ikus ditzakegu, erdikoa handiagoa alboetakoak baino eta hauen atzean eraikin gehiago antzeman ditzakegu. Hauek gotiko



garaiko arkitekturarekin lotu ditzakegu; izan ere, garaiko

2. Irudia: 5.r aurkezpen Kantigako 2.miniatura (musikariak ezkerrean).

arkitekturaren ezaugarriak dituzte, gezi itxurako dorreak, esate baterako.

Arku hauen azpian pertsonaia ezberdinak agertzen zaizkigu: erdiko arkuan, aurreko miniaturan bezala, erregea azaltzen zaigu, berriz ere besteak baino handiagoa eta bere tronuan eserita. Ondoa liburu bat du, zabaldurik ageri dena mahai baten gainean. Ondoko arkuetan, bakoitzean pertsonaia bat ageri da eta atzean kolore gorriko gortinak daude. Hauek erregeak diktatzen dien kantigak idazten ari dira pergamino batean eta oso ondo ikusi daitezke pentagramak notekin eta kantigen letrak¹⁶.

Ezkerreko aldeko arkuaren azpian hiru musikari agertzen dira eta hauek hiru instrumentu ezberdin jotzen ari dira: bai ezkerrekoak eta bai erdikoak bihuela edo fidula izeneko instrumentuak dituzte soinean eta arku batekin jotzen dira. Biolin eta biolaren aitzindari zuzena izango litzateke. Forma eliptikoa duen kirtendun kaxa batez dago egina eta bi tapaz dago osaturik; goiko zatia finagoa eta azpikoa lodiagoa da eta hauek

¹⁵ Bertan hau irakurri daiteke: *por q trob é cosa en que jaz entendimento por e qno jaz ao danz de...* Hau kantiga honen sarrera izango litzateke eta bertan Ama Birjinari bera trobadore izaten uzteko eskatzen dio. ANGLES, H., *op.cit.* 119.orr.

¹⁶ LÓPEZ SERRANO, M., *op.cit.* 329.orr.

uztaien bidez lotzen dira. Kirtena berriz pieza batean dago egina, motza eta laua da, gorputzean sarturik agertzen dena. Klabijak aurrera begira daude kokatuta klabijero lau batean eta normalean hiru edo bost soken artean edukitzen dituzte (kasu honetan 4 dituzte). Instrumentu hau jotzeko era ezberdinak daude, baina kasu honetan zutik ageri dira eta musikariek bular gainean jartzen dituzte.

Eskuinean agertzen den musikariak, kasu honetan, gitarra latina bat du, eta zitara¹⁷ izeneko beste instrumentu batetik eratorria dena. Forma pentagonala duen kaxa batez eta traste antzekoek osatuta dauden kirten batez osaturik dago, klabijero batez amaiturik. Klabijak, kasu honetan, albo batean ditu. Hondo konkordun bat du eta klabijero askok animala edo giza buruez daude koroaturik. Normalean 3 edo 5 soka izaten dituzte, baina batzuetan binaka ere agertzen dira. Kaxaren gainean zizelkatutako dekorazioa izan dezakete batzuetan, nahiz eta kasu honetan nahiko sinplea izan.

Hirukote honen musikariak trobadoreak izango lirateke; berez klase sozial altuagoa zuten, juglareekin konparatuz gero eta instrumentuez lagunduta agertzen dira.

5.2. Musikaria kantigaren protagonista

Aztergai ditugun hurrengoak 8. eta 194.kantiga izango lirateke eta guztiek jarraitzen duten eskema berdina jarraitzen dute: musika partitura batekin hasten da eta, ondoren, poesia batekin jarraitzen du. Azkenik, poesia hauek miniaturen formatuan agertzen dira; beraz, lehen esan dugun bezala eta, kantiga guztietan errepikatzen den bezala, hizkuntza bikoitza erabiltzen da historia berdina azaltzeko.

8.kantiga aztertzerakoan protagonista nagusia juglare bat dela ikusten da eta, zorionez, badakigu honen izena: Pedro de Sigrar¹⁸ dugu musikari hau. Pertsonaia baten izena jakitea oso kasu gutxitan eman dela esan behar da eta, honi esker, hauen bizitzei buruz zerbait gehiago jakitea ahalbidetzen da.

Poesia horrela hasten da:

¹⁷ Erdi Aroko beste instrumentu bat da eta kaxa batean kokaturik soka melodiko eta libreekin osaturik dago.


¹⁸ Hugo Farsitusek idatzitako *De Miraculis Virginis Rupis Amatoris* liburuan agertzen da Petrus Iverni de Sigelar izenarekin.

“Esta es como Santa Maria hizo, en Rocamador, descender una candela a la vihuela del juglar que cantaba ante Ella.”¹⁹

Beraz, izenburuak dagoeneko, eta geroago mirari horrek nola jarraituko duen kontatzen digu sei binetetan banatuta. Pedro de Sigrar garaiko juglare onenetakoa zela kontatzen da eta oso ondo jotzen zuela vihuela. Beti “lais”²⁰ bat jotzen zuen Ama Birjinarentzat, eliza guztietan. Egun batean kantatzen ari denean, Ama Birjinari eskatu zion, bere kankak atsegin bazituen kandela bat emateko afaldu ahal izateko.

Mariari asko gustatzen zitzaion juglarearen kantatzeko era eta horrela, honek eskatu bezala, kandela bat jaitsarazi zuen; baina monjeetako batek eskuetatik kentzera joan zen eta azti bat zela esan zion. Baina juglareak, zeinek Ama Birjinaren eskuetan jarri zuen bere bihotza, ez zuen kantatzeari utzi eta berriro kandela bihuelaren gainean jarri zen. Monjeak, oso haserre, berriro kendu zion eta zegoen lekuan jartzera joan zen eta, bortizki, hau esan zion, kandela eramanez gero, azti bat zela zabalduko zuela.

Hala ere, juglareak jotzen jarraitu zuen eta kandela, berriz ere, bihuelaren



3. Irudia: 15v. 8. Kantiga (musikaria eszena guztietan agertzen da).

gainean jarri zen eta monjea, berriro ere, kentzera joan zenean, jendeak galaraztera joan zitzaion esanez, ezin zutela egoera hori gehiago jasan. Monjeak miraria ikusi eta ulertu zuenean, gaizki egin zuela konturatu zen; juglarearen aurrean ahuspeztu zen eta barkamena eskatu zion Ama Birjinaren izenean. Hau eskertzeko, juglareak, hemendik aurrera, urtero kandela handi bat ekarriko dio Mariari.

Miniaturei dagokionez, sei binetetan banatzen da historia (ikus. 3.irudia). Bakoitzaren gainean errotulu

bat agertzen zaigu, non gertatzen dena azaltzen zaigu. Horretaz gain, denak lotzen dituen lore antzeko dekorazioak ditu eta bineta bakoitzaren izkinetan lehoiak eta dorreak ageri dira. Bi azken hauek Gaztelako erreinuari egiten diote erreferentzia.

¹⁹ FILGUEIRA VALVERDE J., *op.cit.* 24.orr.

²⁰ Europako iparraldean sortutako kanta mota bat zen, batez ere Frantzian eta Alemanian ematen zena, XIII eta XIV.mendeko azken urteetan. Hau kontakizun baten ondoren kantatzen zen konklusio moduan.

Guztietan ikus dezakegu historia leku itxi baten barruan gertatzen dela eta, hori adierazteko, hiru arku zorrotz jartzen dira arkitektura definitzeko. Eraikin hau eliza antzeko bat dela esan genezake, izan ere, horietako arku baten azpian aldare antzeko bat agertzen da, Ama Birjina gainean duela. Aldareari garrantzia emateko eskailera bat jartzen diote.

Hauen atzean, eraikin gehiago azaltzen zaizkigu, beraz hau, lehen esan dudan bezala, Rocamador izango litzateke, miraria gertatu zen herria. Eraikin guztiak erritmo bat jarraitzen dute eta bineta guztietan berdina agertzen zaigu.

Irudiak oso eskematikoak direla ikus dezakegu, ez dute inolako mugimendurik; horretaz gain, hauek arkitekturara moldatu behar dituzte. Proporzio eza ikus dezakegu; izan ere, pertsonaiak ia arkuak sostengatzen dituzten kolomen altuerakoak dira. Beraz esan dezakegu, garrantzitsuena ez zela irudikatzea, baizik eta mezua nolabait helaraztea, doktrina zutelako helburu.

194.kantigan bi pertsonaia izango dira protagonistak: alde batetik, juglare bat eta beste alde batetik Maria bera. Kantiga honen helburua Mariaren izenaren boterea adieraztea da eta gaia, berriz, zapuztua izango den lapurreta eta hilketa bat kontatzea. Beraz, musikaria garrantzitsua izango da historia honetan, tramaren protagonista delako eta beraren bitartez, Ama Birjina goraiatu nahi delako, honek egindako ekintzen bidez.

Horrela hasten da kantiga hau:

“Como Santa Maria salvo de la muerte a un juglar que pronuncio su nombre [que lo querian matar y querian robarle lo que traia]”²¹

Juglareari esker, Maria goraiatzen da, hau salbatu zuelako eta lapurreta eta hilketa bat zapuztu zuelako. Horrela, Mariarengan sinistek ekartzen dituen ondorioak azaltzea izango zen helburua, momentu txarretan bera izango delako salbazio bakarra fededunentzako.

Mirari bat dela kontatzen da (ikus. 4.irudia), zehazki, Katalunian gertatutakoa. Juglare bat, oso ezaguna zena eta ezin hobeto abesten zuena, gorte ezberdinetan kantatzen ibiltzen zen eta, egun batean, Kataluniako zaldun baten etxean hartzen du ostatu. Zaldun honek, inbidia handia zuen juglarearen zelaberea eta janzkerarekiko;

²¹ FILGUEIRA VALVERDE J.,*op.cit.* 315.orr.

horrela, bere bi zerbitzariari agindu zien, juglarea, hurrengo goizean alde egitean, lapurtzea eta hiltzea.

Hurrengo goizean juglarea alde egin zuenean, bakarrik zegoela aprobetxatuz, bi gaizkileak eraso egin zioten eta leku bakarti batera eramane zuten. Gainean zuen guztia lapurtu zioten eta, gero lepoa moztea erabaki zuten. Juglarea hiltzeko zorian zegoenean, Ama Birjinari salbatzeko erregutu zion. Bi hiltzaileek hau entzun zutenean, hitzik gabe geratu ziren eta, ondorioz, mugitu ezinik geratu ziren. Juglarea, momentu hau aprobetxatuz, bere gauzak hartu eta zaldi gainean alde egin zuen. Musikariak bere bidea



jarraitu zuen, Ama Birjinari eskerrak emanez.

Bigarren tipologia honetan eta bi Kantiga hauetako musikariari dagokienez, lehen esan bezala biak juglarea dira eta kantigen protagonista nagusiak izango dira. Hau ez da askotan ematen, izan ere, musikariak askotan bigarren plano batean agertzen direlako. Juglaren hauen lana herriz herri joatea eta beren kanta, dantza eta jokoekin herriko jendea alaitzea zen diruaren truke. Horretaz gain, beste artista batzuen poesiak errezitatzen zituzten gortearen aurrean.

4. Irudia: 255v. 194. Kantiga (Musikaria 2. Binetan agertzen da).

Bi kantigetan agertzen den instrumentua fidula edo arkudun Erdi Aroko biola bat da eta hau gaur egungo biolin eta biolen aurrekari zuzena da²². Gorputz eta helduleku batez dago osatuta: alde batetik, gorputza bi estalkiz dago eginda, gainekoa, finagoa eta azpikoa, lodiagoa; bi hauek uztaien bidez daude loturik. Beste alde batetik, kirtinari dagokionez, pieza bakar batez dago osatuta, laua eta motza, eta gorputzean doa lotuta. Klabinjak aurrean daude jarrita, klabinjero leun batean eta, normalean, hiru eta bost soka izaten dituzte.

Fidula hau modu askotara jo daiteke; besoan edo belarunen gainean jarrita, besteak beste. Kasu honetan, juglaren hau zutik ageri zaigu eta bularraren kontra jartzen du instrumentua. Horretaz gain, modu ezberdinetara jo daiteke; nahiz eta eskuekin ere jo daitekeen, kasu honetan, arku bat erabiltzen du jotzeko. Ikusi dugun bezala, instrumentu hau, aurreko kantigan azaltzen denaren antzekoa izango litzateke. Hala, ikusiko dugun

²² FORD, T., *op.cit.* 38.orr.

bezala, kodizean zehar gehien azalduko den instrumentua izango da eta soken instrumentuen artean garrantzitsuenen artean kokatu behar dugu; izan ere, Erdi Aroko trobadore eta musikariek asko erabiltzen zuten instrumentu bat zen.

5.3. Musikariak iragarle moduan

Musikariak jendea entretenitzeaz gain, iragarle moduan ere ikus ditzakegu. Kodize honetan, zehazki hiru kantigetan agertzen dira era honetan eta hau garrantzitsua izango da, bi testuinguru ezberdin iragarriko dizkigutelako: alde batetik, Ama Birjinaren presentzia eta, beste alde batetik, bi guda egoera ezberdin ikusiko ditugu. Hauek 62, 165 eta 187.kantigetan ikusiko ditugu argi eta garbi.

62.kantigan lehenengo kasua ageri zaigu: musikariak Ama Birjinaren presentzia azpimarratzen eta goraiatzeko digute eta hau, historia baten bitartez kontatzen da.

Kasu honetan zorrez beteta zegoen emakume baten historia kontatzen da; nola bere semea berme bezala utzi zuen, geroago Andra Mariak salbatu zuela. Gertakizun hau Frantzian kokatzen da eta, uste da, kantiga honen iturria Hugo Frasitus-en testua dela. Ez digu esaten Saint-Riquier-en lokalizazioari buruz ezer, nahiz eta bertan ezarri bere mandatua. Gaia oso gaineratik tratatu zuen, zorraren deuseztapenaren eta zergatien inguruan inolako zehaztasunik eman gabe, semearen askapenaren inguruan bakarrik hitz egiten du.

Kantiga hau horrela hasten da:

*“Esta es como Santa Maria dio su hijo a una buena dama para que lo retuvieran en prenda, y crecieron los intereses de manera que no se lo podia coger”*²³

Poesia honen hasieran berriz azpimarratzen da Ama Birjinak beregan sinisten duten guztiei laguntzeko prest dagoela eta hau horrela ez balitz emakumeak bere semea galduko zuela kontatzen du. Horretaz gain, zuen guztia ere galduko zuela aipatzen da, zituen zorrak handiak zirelako eta emakume hau harropuzkerian erori zelako.

²³ FILGUEIRA VALVERDE J., *op.cit.* 113.orr.

(Ikus. 5.irudia). Emakume hau familia nobleko kidea izan arren, hartzekodunak ez ziren berak agindutakoaz fidatzen eta, ondorioz, bere semea utzi behar izan zuen berme moduan. Hau egin ondoren asko damutuko dela kontatzen da, berak gehien maite zuena utzi baitzuen hartzekodunen eskuetan.

Hemendik aurrera, atsekabe handi bat etorri zitzaion zorra asko igo zitzaiolako eta, zoritxarrez, ez zitzaion posible zuen guztiarekin ordaintzea. Hori gutxi balitz, bere ingurukoen aholkuek ez zioten ezertarako balio; izan ere, ez zen besteen aurrera joateko gai izan. Horrela, emakume zentzuduna izan zen eta Ama

Birjinaren aldarera joan zela aipatzen da. Bertan zegoela, Ama Birjinari laguntzeko eta bere semea berarengana bueltatzeko eskatu zion; Mariak erantzungo dio semea bueltan ekarriko ziola.

Geroago, emakumea pozik eta alai joango da zaldi gainean bere semearen bila eta herrian topatuko du, jendearen artean dantza eginez. Emakumeak umeari deitu egin zion. Jendeak ez zion ezer esango, ezta galdetuko ea zergatik eramaten duen berarekin; horrela, zaldi gainean jarri zuen. Poesia hau Ama Birjinaren garrantzia goraiapatuz amaitzen da.

Lan guztian aipatu dudan bezala, historia hau miniaturretan irudikatua agertzen da. Kasu honetan 6 binetetan dago banatuta eta musikarien garrantzia bosgarren binetan ikusten da. Miniatura hau aztertzean, garai honetan oso ohikoa den proportzio eza ikusi dezakegu; izan ere bai emakumea eta bai Ama Birjina herriko jendea baino altuagoak eta handiagoak egiten dituzte. Ezberdintasun hau hiriaren harresiarekin eta inguruko eraikinekin ere konpara dezakegu, hauek bi emakumeak baino txikiagoak direlako.

Halaber, sakontasuna lortzeko buruak bata bestearen gainean jartzen direla ikusten dugu eta pertsonen buru guztiak berdinak direla esan dezakegu: zapi zuria eta ile horia dute. Musikariak ere jendetzaren artean agertzen direla ikus dezakegu, ez dute inolako bereizketarik egiten hauek ezberdintzeko, beraz, hauek herriaren parte direla irudikatzen da.



5. Irudia: 90v. 62. Kantiga (musikariak 5.binetan ageri dira)

Hurrengo bi kantigak, 165 eta 187.a batera aztertuko ditut, antzekoa adierazten dutelako. Biek guda eszena bat kontatzen dute eta musikariek, kasu honetan, guda egoera horretan karakter militar bat izango dute. Guda egoera batean zerbait iragartzea izango da beraien helburua. Horretaz gain, kristautasunaren garaipena azpimarratu nahiko da eta musulmanekin izandako gudak kontatuko dira hemen.

165.kantigari dagokionez, Tartus (Siria) izeneko hiri batean emandako mirari bat kontatzen da; Mariak, hiri hau, konkistatu nahi zuen Bondoudar sultanarengandik babestu zuen. Beti kristauekin guda bizian egoten zen; horrela, kristauen artean espioiak zituela kontatzen da eta horietako batek esaten dio Tartus hartuz gero, ohore handia irabaziko zuela. Horrela, mendi batera igo eta ikusi zuen hirian ez zegoela inor, ondorioz, hau konkistatzea erabaki zuen. Tartuseko hiritarrak, beldurtuta, elizara joaten dira Ama Birjinari otoitz egitera. Otoitz horietan fededunak direnez babesteko eskatzen diote.

Hurrengo egunean, sultanak hiria hartzeari ekin zion eta bertara iristean, pentsatzen zuen jende asko egongo zela bertan erasotzeko prest; hau horrela, informazioa pasa zion langileari deitu zion, gezurra esan ziola leporatuz. Honek erantzun zion bertako hiritarrak elizara joan zirela eta Ama Birjinak zeruko zaldunak bidali zituela hiria babesteko. Sultanak eman zion erantzuna garrantzitsua da, musikarien lana azaltzen duelako:

*“He hallado en el Alcoran que Santa Maria fue siempre virgen; y, puesto que sé, no entrare en guerra con Ella de ninguna manera, y de aqui me vuelvo luego: haz tocar el timbal”.*²⁴

Horrela, Ama Birjinari otoitz egitera joan zen. Beraz, argi eta garbi ikus dezakegu musikariek hemen zuten garrantzia eta iragarleen paper hori esaldi honetan islatuta ikusten dugu.

187.kantigari dagokionez, beste guda eszena bat kontatzen da, zehazki Granadan musulmanen aurka emandakoa. Hau Chincollako gazteluan, Villanueva de Arzobispo (Jaen) herrian gertatu zen eta bertako alkaideak oso ondo zaintzen zuen gaztelu bat zegoen. Askok goraipatzen zuen Belmez-eko musulman bat, baina honek Granadako erregearekin hitz egin zuen eta esan zion Chincollako gaztelua berarentzako lortuko

²⁴ FILGUEIRA VALVERDE J., *op.cit.* 273.orr.

zuela; honek gazteluko alkaidearekin hitz egingo zuela esan zion eta elkarrizketan sartzen zenean atxilotu egingo zuela adierazi zion. Granadako erregeari mehatxu egin zion eta hau lortzen ez bazuen burua moztuko ziola adierazi zion.

Horrela, musulman hau alkaidearekin hitz egitera joan eta kristau eta musulmanen aurrean hitzarmen bat sinatzera joan ziren. Chincollako alkaideak, inolako hondamenik ekarriko ez ziolakoan, bi ezkutariarekin joan zen bertara; baina bi hauek beldur zirenez, gaztelura bueltatzea erabaki zuten. Alkaideak aurrera jarraitu zuen eta bertara iritsi zenean Granadako erregearen aurrera eraman zuten atxilotuta; errege honi adierazi zion, ez zuela inolako elikagairik gazteluko jendeari emateko. Beraz, erregeak ez zuen inolako mehatxurik ikusten eta gaztelura joatea erabaki zuen hau hartzeko asmotan.

Alkaideak, gazteluko jendeari, Granadako erregearen aurka eraso egiteko eskatu zien, baina hauek Ama Birjinaren irudia hartu eta almenen artean jarri zuten. Hau egin ondoren, Mariari gaztelua defenditzeko eskatu zioten. Erregeak hau ikusita, erasoa atzera botatzea erabaki zuen eta gaztelura sartu ziren hiru soldadu musulmanak hil egin zituzten. Hau horrela, tronpetak jotzea agindu zuen beraien Granadarako martxa adierazteko. Horrela, Chincolla, Ama Birjinari esker salbatu zen.

Hiru Kantiga hauetako musikarien papera iragarlea izatea izango litzateke; izan ere, 62.kantigan emakumeak bere semea eramaten duen momentuan azaltzen dira. Bera zaldi gainean doala bere semarekin eta atzean Ama Birjina azaltzen zaigu emakumea babesten. Horrela, musikari hauek Ama Birjinaren presentzia eta bere dibinitatea azaltzen dute. Beste bi Kantigetan, berriz, guda eszenak direnez, karakter militarra dute; beraien garrantzia azpimarratu nahiko dute eta horretarako musika instrumentuak erabiliko dituzte.



Hauek dituzten instrumentuei dagokionez, hiru **6. Irudia: 247r. 187. Kantiga** kantigetan tronpa izeneko tronpeta luze eta zuzenak **(xehetasuna).**

azaltzen dira eta hodi koniko bat dute bukaeran eta pieza ezberdinez osaturik daude (ikus. 6.irudia). Ez du inolako zulorik, baina badute eraztun antzeko pieza bat zati

ezberdinak lotzeko.²⁵ Instrumentistak putz egiten du alde batetik eta eskuekin eusten du hau jo ahal izateko. Karakter militarra duen instrumentua da, normalean zerbait garrantzitsua denean iragartzeko erabiltzen dena; kasu honetan, Ama Birjinaren garrantzia azpimarratu nahi da tronpa hauekin.



7. Irudia: 222r. 165.Kantiga

Gainera, 165.kantigan beste instrumentu bat ere agertzen zaigu. Hauek danbor antzekoak dira eta perkusioen familien barruan sailkatuko genituzke (ikus. 7.irudia). Egurrezko zilindro huts batez daude osatuta eta larruzko bi telaz daude estalirik. Azpian soka bat jartzen da larru hori estutu dezan eta horrela arradak egitea posible izango litzateke. Arabiar jatorria du eta Erdi Aroan asko erabili zen instrumentu bat izan zen, lehenago aipatu ditudan arrazoiak direla eta.

5.4. Musikariak (aingeruak) paradisuan

100. kantigan agertzen zaigun egoera dela eta, ikusiko dugun bezala, aingeru musikariak garrantzia handia izango dute, paradisuan musika egiten dutelako; horretaz gain, Alfontso erregea ere agertuko zaigu. Kasu honetan, Kantigaren gaia Ama Birjina bera izango litzateke; izan ere, berari goraiatzeko poesia eta miniaturak izango lirateke. Horrelako hitzak erabiltzen dira kantigan egitasmo hau burutzeko:

*“Porque haces ver a los errados que se perdieron por sus pecados, y les haces entender que son culpables; pero que Tu los perdonas de las osadías que les hacías hacer locuras que no deberían”.*²⁶

Kasu honetan, bekatuan erortzen direnei Mariak babesten diela azaltzen da; bekatu horiek ez direla egin behar adierazten da eta hori gutxi balitz, berari esker, fededunak bide onetik eramaten dituela aipatzen da. Berak erakusten digu benetako bidea; horretaz gain, Jainkoaren eta gizakiaren artean bera bitartekaria dela adierazten zaigu eta, Jainkoak benetako bidea Ama Birjinaren bidez erakutsiko digula adierazten da. Berari esker paradisura iritsiko garela dio, non jainkoak alaitasuna eta gozamena emango dio berengan sinisten duen orori. Horrela, erregeak, Jainkoari esaten dio, ea

²⁵ FORD, T. *op.cit.* 107.orr.

²⁶ FILGUEIRA VALVERDE J., *op.cit.* 174.orr.

Ama Birjina bere arimaren lagun izan nahi duen, Mariaren eskuetan utziz. Garrantzitsua da aipatzea Ama Birjinari erreferentzia egiten diola izarraren bitartez. Alfontso X.ak Espainiako Andra Mariaren Ordena edo Izarraren Ordena²⁷ sortzerakoan izarra sinbolo gisa hartu zuen Ama Birjinari zion debozioa erakusteko. Beraz kantiga hau oso garrantzitsua da, bai duen gaiagatik eta miniaturretan irudikatzen denarengatik.

Miniaturretan dagokionez, aurrerago azaldu dudan guztia oso ondo islatuta agertzen da. Ama Birjinaren irudia azpimarratzen da, erregea belaunikaturik agertzen denez, bere aurrean dioen debozioa azpimarratzeko. Maria aingeruez inguratuta agertuko da eta horretaz gain, Jainkoaren irudia ere agertzen da, zeruan. Erregeak Jainkoa seinalatzen du salbazioa hor dagoela erakutsiz. Horretaz gain, dagoneko lehenengo binetan izarra agertzen da, lehen aipatu dugunaren sinbolo izango litzatekeena.

Musikarien garrantzia ere agertzen da miniatura honetan. Paradisuko aingeru musikariak dira, beraz musika alaia eta poztasunez beterikoa egingo dute, paradisu horrelakoa baita. Miniaturisten helburua bizitza ideal hori irudikatzea da eta aingeru musikariak Paradisuaren parte izango lirateke. Pertsona talde handi bat ikus dezakegu



8. Irudia: 145r. 100. Kantiga
(Xehetasuna)

eta aingeru musikariak lehenengo lerroan kokatzen dira, ondorioz, argi eta garbi ikus dezakegu zer nolako instrumentuak erabiltzen dituzten.

Aurrekoetan ez bezala, kasu honetan aingeru musikari talde bat agertzen zaigu (ikus. 8.irudia) eta, ondorioz, instrumentu ezberdinak aurki ditzakegu (ezkerretik eskuinera):

– Rebâb edo Raben-a: instrumentu kordofono bat dugu eta arku bat erabiltzen da jo ahal izateko. Bi edo

hiru sokez osaturik dago eta erretxina aplikatu zaion zurdadun (zaldiek lepo aldean dituzten soka batzuk) arku bat erabiltzen da. Erresonantzia kaxa egurrezkoa da eta estalki harmonikoa egurrez, larruz edota latorriz eginda zegoen. Instrumentu hau X.mendetik aurrera hasi zen erabiltzen eta arabiar

²⁷ Alfontso X.a Jakintzuak 1270.urtearen inguruan sortutako ordena erlijiosoa da eta Zistertar ordenaren parte zen. Tunika beltza eta kapa gorri bat eramaten zuten, azken honetan izarra erantsita. Florentziako Kodizean Ordena honi eskainitako kantiga bat agertzen zaigu. Sortu eta hamar urte geroago Ordena guztiz desegin zen Algeciraseko gudaren ondorioz.

jatorria izango luke. Erdi Aroan asko erabili zen eta ilustrazio hau izango litzateke popularitasun horren adibideetako bat.

- Lautea: kaxa handia eta kokorduna den instrumentua da eta klabijeroa okertuta du, klabijak alde batean edukiz. Sokak binaka zeuden kokaturik eta ez du inolako trasterik. Hau jotzeko behatzak edo plektro bat erabiltzen da. Aurreko instrumentua bezala, arabiarren eskutik iritsi zen Iberiar Penintsulara. Bere berezko izena Ud zen, baina penintsulara iristean izena aldatu eta Europa osora zabaldu zen izen horrekin.
- Salterio trapezoidala: erresonantzia kaxa laua duen instrumentu da eta honen gainean, paraleloki sokak jartzen dira. Guztiz Erdi Arokoa den instrumentu bat da, XV.mendera arte erabili zen instrumentu bat izan zen eta hau jotzeko behatzak edo plektro bat erabiltzen da; horretarako magalaren gainean jartzen da. Kasu honetan, hego formakoa da eta askotan “hego bohemioa”²⁸ ere deitu izan zaio. Bibliarekin lotzen da ere, zehazki, salmoekin. Beraz, esan dezakegu zentzua duela paradisuko ilustrazioarekin batera agertzea.
- Rota edo krota: triangelu errektangulu formako instrumentua da, 17 sokaz osatuta dagoena. Magalean jarri eta plektro edo behatzak erabiliz jotzen da. Erresonantzia kaxaren gainean errosetoi antzeko dekorazioak izaten zituzten. Erdi Aroan asko erabilitako instrumentu bat da eta lira antzekoa da.
- Zinbala: kasu honetan, perkusio instrumentu bat dugu eta gaur egungo orkestrako txindaten aurrekari bezala kontsideratzen da. Metalez eginikoak dira eta erdialdean hutsune antzeko bat dute, bertan hatz lodia sartu eta zinbala eutsi ahal izateko. Antzinarotik datorkigun instrumentu bat da eta arte klasikoan asko ikusiko dugun instrumentu bat izango da.

5.5. Musikariak Ama Birjina goraiatzeko

Hurrengo tipologia hau 120.kantigan agertzen da eta Ama Birjinari dago eskainita. Aurrekoak bezala, kantua partiturarekin hasten da, poesia duelarik eta sei miniaturrekin amaitzen da. Kantiga honek aholku bat du: erregearengan sinisten dutenek

²⁸ FORD, T., *op.cit.* 27.orr.

bere ahotsera batuko dira, dena ondo joango zaie, bai hemen eta bai haratago eta Andra Mariaren laguntza lortuko dute.

Ama Birjina Jainkoaren ama bezala gorai patzen da; izan ere, bera gabe ez genuke Jainkorik izango; horretaz gain, bera gabe ez genuke Jainkoa behar den bezala ezagutuko eta horregatik aurrerago esan dugun aholku hori ematen da. Salbazioa lortzeko bera zerbitzatu eta maitatu behar dugu; horrela, berarengan mesede handia lortuko dugu. Azkenean, asko maitatzera iritsiko gara eta, ondorioz, ezin izango gara berarengandik inoiz ere ez askatu.

Miniaturari dagokionez, hau ere 6 binetaz osatuta dago eta aurrerago azaldu duguna irudien bidez agertzen zaigu. Lehenengoari garrantzia eman behar diot, bertan agertzen direlako musikariak eta bertan erregeari zerbitzatzuz gero, Mariarenganako maitasun hori handitu egingo delako. Horrela, ezker aldean musikariak ageri dira, aurrerago aipatuko ditugun instrumentuekin; erdialdean, erregea belaunikaturik eta eskuinaldean, Maria umearekin.

Hurrengo binetetan Jainkoaren eta Mariaren irudia askotan agertuko da, *Maiestas Domini* bat ere ikusten dugu eta lehenago aipatu dudana bezala, berarenganako fedea izatera bultzatzen dute fededuna; horrela, salbazioa lortuko da.

Musikarien irudia garrantzitsua izango da berriz ere, izan ere, Ama Birjinaren omenezko musika egiten ari direla ikus dezakegu. (Ikus. 9. Irudia). Musika instrumentu ezberdinak ageri dira kasu honetan ere eta, hori gutxi balitz, hiru pertsonaia ageri zaizkigu dantzan. Denak emakumeak direla azpimarratu behar da eta hauek taldean ageri dira. Lehen bezala, lehenengo lerroan agertzen dira instrumentuak dituzten musikariak eta atzean, zutik, beste bat ageri zaigu. Instrumentu ugari ageri dira kasu



9. Irudia: 170v. 120. Kantiga (xehetasuna).

honetan ere: Fidula edo Erdi Aroko biola, bi salterio trapezoidalak eta rota edo krota lehen ere agertu zaizkigunak, beraz, orain arte agertu ez direnak azaltzeri ekingo diot.

Alde batetik, salterio errektangeluarra dugu. Hau trapezoidalaren antzekoa da eta aldatzen den bakarra erresonantzia kaxaren forma da. Hau, izenak dioen bezala, errektangeluarra da eta bost errosetoi ditu

instrumentua apaintzeko. Magalean jartzen da eta plektro edo behatzak erabiliz jotzen da.

Beste alde batetik, albogea instrumentua dugu eta hau albokaren aitzindaria izango litzateke. Haizezko instrumentu bat dugu hau eta tutu batez osaturik dago; mihi bikoitzeko ahoko edo pitatik egiten da putz soinua ateratzeko. Tutuan zehar zuloak ditu, hatzekin tapatuz nota eta soinu ezberdinak ateratzeko. Tamaina eta forma ezberdinetakoak direla aipatu behar dut; normalean egurra erabiltzen da hau egiteko. Izenak jatorri arabiarra du, baina bere jatorria ez dago oso ondo zehaztuta; esaten da Asiatik eratorria izan zela, baina askok toki ezberdinetan aldi berean ageri izan zela diote.

6. ONDORIOAK

Alfontso X.a Jakintsua obra askoren promotore handia izan zela aipatu behar da eta bere obrak bai Europako bai Hispaniako Behe Erdi Aroa ulertzeko zalantzarik gabeko erreferentziak dira. Halaber, erregearentzat kodize hauek oso garrantzitsuak zirela azaldu da, izan ere, hauen bitartez, Ama Birjinarenganako debozio handi hori erakusten du.

Ikusi dugun bezala, debozioa oso presente egongo da kantiga guztietan; izan ere, Maria salbatzaile moduan ikusiko dugu eta musikariek ideia hau indartuko dute. Ideia hau indartzeko gaiarekin zerikusia dituzten kantak interpretatzen zituzten eta jendeari doktrina bat helarazteko erabiltzen zituzten. Musikari hauek, beraz, hizkuntza unibertsal bat helaraztea zuten helburu eta, horrela, analfabetoei erakusteko poesia eta kantua erabiltzen zituzten; aztertu ditugun miniaturak horren isla dira.

Miniaturetako musikarien irudikapenak garrantzizkoak direla aipatu behar da, XIII.mendeko eta, batez ere, Alfontso X.aren gorteko musikariei buruzko informazio gehiago ematen dutelako: janzkera, jarrera... Hala ere, kantiga batzuetan agertu zaigun bezala erregea izango da musikaririk garrantzitsuena, bere burua trobadoretzat hartzen zuelako.

Horregatik, garrantzitsua izango da musikarien irudikapen hau kantigetan, erregeak musika oso gustuko zuelako eta bera ere musikari hauen taldeko partaide ikusten zelako. Erregea agertzen den bakoitzean musikariak gertu izango ditu, bera ere

musikaria kontsideratzen delako eta Mariaren trobadore izan nahi duelako. Ideia hau kantiga batzuetan azpimarratzen dela ikusten da.

Musikariei maila jainkotiarra ere ematen zaiela ikusi dugu. Paradisuan aingeru musikariak agertzen dira eta hauek gozamenaren isla izateaz gain, Mariaren eta mundu jainkotiar hori islatu nahiko dute. Horregatik, lehenengo planoan agertuko dira, eskuetan instrumentuak dituztela.

Instrumentuen aldetik, miniaturrei esker, nolakoak ziren jakin daiteke, zer nolako forma zuten eta musikariek zer jarretan jartzen ziren hauek jo ahal izateko. Irudikapen hauen bidez, instrumentuaren forma eta dekorazioaren erreproduzio zehatzak egin daitezke. Zoritxarrez ezin dugu jakin nolako soinua ateratzen zuten, beraz erreproduziorako zailtasuna izan dezakegu.

Ikusi dugun bezala, musikarien irudikapena tipologia ezberdinetan banatzen da eta musikari bakoitzak kantiga batean eginkizun jakin bat izango du. Tipologia hauek erlazio zuzena izango dute, azken finean, erregearekin eta Ama Birjina goraiatzearen nahi horrekin. Beraz, kantigen miniaturretan garrantzi handiko pertsonaiak kontsideratzen dira, istorioaren parte.

Ikusten dugun bezala, garrantzia handiko obra bat da, bai arlo arkeologiko, bai historiko eta batez ere, bai musikaren aldetik eta aipatutakoa, oso ondo islatzen du Higinio Anglesek idatzitakoa artikulu honetan:

“La corte del rey Alfonso estuvo siempre rodeada de poetas y músicos excelentes, de trovadores y juglares nacionales y extranjeros para cantar las melodias y tocar los instrumentos²⁹”

²⁹ ANGLES, H., “Las Cantigas del Rey Alfonso el Sabio, fiel reflejo de la música cortesana y popular de la España del Siglo XIII”, *Academia Alfonso X el Sabio*, Murtzia, 1952, 18.orr.

7. BIBLIOGRAFIA

ÁLVAREZ MARTÍNEZ, R., “Incidencia de una forma de trabajo en la representación de los instrumentos musicales: La copia de códices en la edad media”. *Nassarre: Revista Aragonesa De Musicología*, 23(1), 2007, 53-70.orr.

ANGLÉS, H., *La Música de las Cantigas de Santa María del Rey Alfonso el Sabio*, Diputación Provincial de Barcelona: Biblioteca Central, Barcelona, 1958.

ANGLES, H., “Las Cantigas del Rey Alfonso El Sabio, fiel reflejo de la música cortesana y popular de la España del Siglo XIII”, *Academia Alfonso X el Sabio*, Murtzia, 1952, 9-22.orr.

CAPDEPÓN, P., “La música en la época de Alfonso X el Sabio: las Cantigas de Santa María”, *Alcanate VII*, Sevilla, 2010-2011, 181-214.orr.

CHICO PICAZA, M^a V., “Praxis y realidad en la miniatura del Códice Rico de las Cantigas de Santa María”, *Codex Aquilarensis* 28, Palencia, 2012, 149-167.orr.

FERNÁNDEZ DE LA CUESTA, I., *Historia de la música española: I. Desde los orígenes hasta el “ars nova”*, Alianza Musical, Madrid, 1988.

FILGUEIRA VALVERDE, J., *Cantigas de Santa María: Códice Rico de El Escorial*, Editorial Castalia, Madrid, 1985.

FORD, T., *Lista de instrumentos musicales occidentales: Anotada desde un punto de vista iconográfico*, Asociación Española de Documentación Musical, Madrid, 1999.

GUERRERO LOVILLO, J., *Las cantigas: Estudio arqueológico de sus miniaturas*. Consejo Superior de Investigaciones Científicas. Madrid, 1949.

LÓPEZ SERRANO, M., *et. al. El Códice Rico de las Cantigas de Alfonso X el Sabio: Ms. T.I.1 de la Biblioteca de El Escorial*, Edilan, Madrid, 1979.